



2008ko abenduko ALBISTEAK:

Espainiako Estatuak Eurokartaren konpromisoak ez ditu betetzen

Europako Kontseiluak argitaratutako txosten batek arazorik nabarmenenak Justizian eta administrazio publikoen alorretan daudela dio. EAERI dagokionez, Ertzaintzak eta Osakidetzak euskara erabiltzerakoan dituzten hutsunez ohartarazi du.

Gara: <http://www.gara.net/paperezkoa/20081212/111362/es/Europa-advierde-Lakua-e-Irunea-carencias-conocimiento-euskara/>

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1229413579

Haria (ARGIA): <http://www.argia.com/albiste.php?id=33344>

Diario de noticias de Navarra: <http://www.noticiasdenavarra.com/ediciones/2008/12/13/sociedad/navarra/d13nav6.1446687.php>

Immigrazioak ia ehun hizkuntza ezberdin ekarri ditu EAERA

Gaztelania indartu egin da horren ondorioz, etorritakoen erdia hegoamerikar jatorrikoa delako. Gure artean dauden hizkuntzetatik 9 amerikar kontinentetik datoz, 53 Afrikatik, 29 Europatik eta 14 Asiatik.

Noticias de Alava: <http://www.noticiasdealava.com:80/ediciones/2008/12/11/sociedad/euskadi/d11eus15.1101313.php>

'Local moves the World'

Rober Gutierrezek, Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak dioenez, "Gure inguruan euskarak geroz eta leku handiagoa du, eta, beraz, enpresek merkatuaren eskaerei erantzuteko gai izan behar dute".

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1228216314

Euskararen Egunaren bueltan jasotako albisteak

Aldarrikapenak, iritzi artikulua, erakundeen adierazpenak, antolatutako ekitaldiak...

Berria: (iritzi artikulua) http://www.berria.info/paperekoa/iritzia/2008-11-30/006/007/ZUZENDARIARI_Euskararen_eguna_Enpresen_euskalduntzea_MAIKA_IBARROLA_JOSEBA_MONTEJO..htm

Erabili.com: (Eusko Jaurlaritzaren adierazpena) http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1228208832

Gara: (Euskal Herrian Euskaraz) <http://www.gara.net/paperezkoa/20081204/110103/eu/Euskararen-aldeko-lana-ezin-dela-egun-bakarrera-mugatu-ohartarazi-du-EHEK/>

Diario de noticias de Alava: <http://www.noticiasdealava.com:80/ediciones/2008/12/03/opinion/d03opi3.1358234.php>

Ahozko ondarea: internetetik irratira

Oiartzun Irratiak saio berria estreinatu berri du, "Oiartzuarren baitan". Aiton-amonei egindako elkarrizketak lehen internet-sarean baldin bazeuden, orain irratitik entzuteko aukera dago, asteazkenetan eta larunbatetan.

Sustatu: <http://feeds.feedburner.com/~r/sustatu/~3/480347856/1227856077>

Gabonetan oparitu euskarazko produktuak.

- **Ehundaka produktu berri euskarazko Produktuen Katalogoan.** Paperezko edizio berrian 317 produktu jasotzen dira eta interneteko edizioan kasik 400 (www.katalogoa.org)

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1228384021

- **Geografian dakiguna erakusteko eta ikasteko CD-ROMa.** Lau jokoren bidez toponimoen kokapena, euskaraz nola idazten diren eta abar ikasiko dugu. Horrez gain, mapa mutuak ere baditu. Adin guztientzat.

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1227864966

'Telefonoak badaki euskaraz. Anima zaituz!'

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta telefonia enpresa nagusiek, publizitate kanpaina hasi dute, telefonoak jadanik jarrita daukan euskararen aukera egin dezagun.

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1229066695

Atlasa.net, Euskal Herria hobeto ezagutzeko

Euskal Herriko ekonomiaren eta gizartearen atlasa, Gaindegiak egin duena.

Gaindegia: (ARGIA): <http://www.atlasa.net/eu/aurkezpena>